

Gezurrik faltsuena

E

gia eta zoriona izango dira, segur aski, gizakiari galdera gehien sorrarazten dizkieten kontzeptuak edota gizakiak gehien bilatzen dituenak. Kontua da, Irigoienek zioen bezala, egia poliedrikoa dela. Eta poliedrikoa da egia horren gainean gutariko bakoitzak egiten duen interpretazioa ere. Errealitatearekin beste hainbeste da gertatzen.

Beraz, errealitateaz hitz egitea, beti kako-txen artean egin beharreko lana edo aipamena litzatekeela uste dut. Hala ere, badira bozgorailuak (demagun, *mass-mediak*, iritzi liderrak) edo zientzialariak, Beñatek zioen bezala, egiaren jabe egiten direnak. Egiaren jabe lez agertzen direnak. Egiari izena jartzeko ausardia (edo jakina?) dutenak. Finean, egia manipulatzeko dutenak. Baina zilegi al da manipulazioaz hitz egitea?

Badakigu badirela berariaz egia manipulatzeko lanbide dutenak. Badira, horretan oinarrituta euren boterea legitimarazten dutenak. Aitzitik, bada herririk nahiz hiritarrik, egia saltzaileak behar dituenik. Eta bada egia saltzaileak behar dituenik erabaki bat hartzeko, iritzi bat izateko, nortasun baten jabe dela sinesteko, zerbaiten parte sentitzeko, fedean bizitzeko, edota hartu duen erabakia “halaxe” dela sinestea komeni ez ezik, beharrezkoa duenik seguru sentitzeko. Eta, gutxi asko, guztiok jolasten dugun jokia dela esatera ausartuko nintzateke. Nor bere betaurrekoen babesera.

Gure herria fededuna (izan) da; auzolanean eskarmentuduna; egia esateagatik nekaldua; egiaren bila abiatzeagatik galdua; eta egiadun gizon-emakumeak

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Sarasola

(batez ere gizonak) miretsi eta goretsi dituenak.

Egiak balio handia dauka gurean. Gehiegizkoa, beharbada. Jakinik, gainera, gezurretan faltsuena dela egia. Honetan, komunikabideek asko dute esateko. Eta, honetan, ilusio sortzaileek asko dute bekataritik. Baina horrekin

bizi gara. Eta elikatu egiten dugu. Zeren eta gure egiaz mintzo direnean, jokia erraz onartzen baitugu. “Beste egia” dira, izan ere, errealitateetik urrunduak iruditzen zaizkigunak.

Ez dago egia bakarra. Errealitate bakanik ez dagoen bezala. Horregatik iruditzen zaizkigu astakeriak batzuek esaten eta sinesten dutena. Horregatik faltsua beste batzuek bizi dutena. Baina egun bat beraien azalean jartzeko bestelakorik ez dago. Gauza askotxo ulertzen dira, onargarriak irudituko ez bazaizkigu ere.

Egia mozkorrek eta umeek ez ezik, burua galduta dutenek ere esaten dute. Euren nahasian, eromena sortu dien lasto-mina baztertuz gero, tarteka-marteka, egia tanta lodiak jaurtitzen dituzte. Ez ditugu entzuten. Ez diegu jaramonik egiten. Eta, beraiek, ezer galtzekorik ez dutelako, egia esaten jarraitzen dute, nahiz eta badakiten, egiaren bakartasuna manipulatzeko dutenen mirabe izango direla, egiari hego bat gehiago jarri nahirik, eta errealitate maluta inpresionista bat poliedroari gehitu ezinik.

Entzuteko eta ulertzeko gaitasun apur bat gehiago bagenu, edota jabetza unibokoaren kontzeptzioa apur bat apalago, orduan, beharbada, egia eta bizi dugun errealitatea bera ere, zalan-tzan areago jarriko ginatuzke. Eta jasangarriagoak ginatuzke. ■



Gure herria fededuna (izan) da;
 auzolanean eskarmentuduna; egia esateagatik
 nekaldua; egiaren bila abiatzeagatik galdua;
 eta egiadun gizon-emakumeak (batez ere
 gizonak) miretsi eta goretsi dituenak.

Egiak balio handia dauka gurean.

Gehiegizkoa, beharbada

